

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Tutera sindromea

LOS ANGELES (AEB), 1979. James Bridges zuzendariaren *The China Syndrome* filma estreinatu zen martxoaren 16an. Jack Lemmon, Jane Fonda eta Michael Douglas aktoreak zituen protagonista, eta Kaliforniako Ventana fikziozko zentral nuklearreko istripua zuen hizpide.

Filma ez zen egiazko gertakizunetan oinarritu. Alderantziz, errealtatea filmean oinarritu zela dirudi. 1979ko martxoaren 26an, goizeko 4:00etan, filmaren estreinalditik hamabi egunera beraz, AEBetako beste kostaldean, Harrisburg (Pennsylvania) herritik hurbil dagoen Three Mile Island zentrallean istripua izan zen. Filmean bezalaxe, erreaktoreko uraren maila adierazten zuen balbula balio altuegiak adierazten hasi zen. Adierazle hura jaistearren, kontrol egoitzako teknikariek uraren maila jaitea erabaki zuten. Baina, bai filmean bai errealtatean, uraren maila adierazten zuen tresnak zuen matxura eta, beraz, maila hori egokia zen hasiera batean. Jaisten hasi zirenean, erreaktorearen nukleoa agerian uzteko arriskua sortu zuten, isuri masiboa eragiteko arriskua, alegia.


Eta hori gertatuz gero, zer? 1971n Ralph Lapp fisikari nuklearrak filmari izena eman zion Txina sindromearen hipotesia aurkeztu zuen. Erreaktorearen nukleoan isuri masiboa izanez gero, isuriak azpian topatzen zuen

guztia urtuko zuen, hau da, lurra zulatuko zuen antipodetara (AEBn kasuan Txinara) iritsi arte. Bai fikzioan, bai benetan, erreaktorea kontrolpean zuten istripua gertatu eta gutxira. Isuria oso txikia izan zen, baina egoera oso larria, arduradunak larritasun hura publikoari ezkututzen saiatu ziren arren. Hor ere bat datoz filma eta egiaz gertatutakoa.

Txina sindromerik ez da sekula gaur arte gertatu eta, zientzialarien arabera, ezinezkoa litzateke inoiz gertatzea. Harrisburgeko istripuaren eragina ez zen Txinara iritsi. Bai, ordea, Tuterara.

70eko hamarkadan energia nuklearrak gero eta kezka handiagoa sortu zuen herritarrengan. *The China Syndrome* filmak kezka hori islatu zuen, eta Three Mile Islandeko istripuak, areagotu.

Istripuaren ondoren, munduko hainbat tokitako talde antinuklearrak erabaki zuten urte bereko ekainaren 3a Energiaren Aurkako Nazioarteko Eguna bihurtzea. Mobilizazioak antolatu ziren mundu osoan, baita gurean ere. Lemoizko zentrala zela-eta, gaia pilpilean zegoen, eta jendetza bildu zen Tuteran deitutako manifestaziora. Mobilizazio baketsuak amaituta, Jose Martinez Salas guardia zibilak tiro egin eta Gladys del Estal Donostiako Egiako ekologista gaztea hil zuen. Isuria Euskal Herriraino iritsi zen.




Goian, *The China Syndrome* filmaren kartela. Horren azpian, Three Mile Island-eko erreaktore nuklearra suntsitu zutenekoa (1984ko uztaila).

Goiko filmak fikziozko istripu nuklearra zuen hizpide, baina estreinatu eta egun gutxira, benetako istripua gertatu zen Three Mile Islandeko zentrallean.

Arrastoak

El Cogul-eko margoak bideoan

1908AN, Ceferi Rocafort ikerlaria Lleidako (Katalunia) probintziaren inguruko datu geografikoak biltzen ari zela, bertakoek han inguruan kobazulo bat bazela eta barruan labar pinturak zeudela esan zioten. Kobazuloa bisitatu eta Roca dels Moros delakoaren aurkikuntza ofizial bilakatu zen berehala. Iaz, aurkikuntzaren 100. urteurrena zela eta, hainbat ekitaldi burutu zituzten, besteak beste Kataluniako Arkeologia Museoak eta Giza Paleoekologia eta Eboluzio Sozialeko Institutu Katalanak elkarlanean egingako bideoa. Bertan Ramon Viñas adituak margoen garrantzia eta horiek egiteko erabili zuten metodoa azaltzen du, hainbat animazio birtualez lagunduta. Orain, nahi duenak bideoa Interneten ikusteko aukera du <http://es.youtube.com/iphe svideos> helbidean.



El Cogul-eko (Lleida) Roca del Moros kobazuloko labar-pinturen xehetasuna. Ehun urte bete dira artelanok aurkitu zituztenetik eta, horregatik, margoei buruzko bideoa egin eta Interneten ipini dute ikusgai.